

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO
BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Uztaila - Abuztua / 279 Zenbakia



BILBAO METROPOLI-30 ELKARTEAREN OHIKO eta EZOHIKO
BATZAR OROKORRA

Bilbao Metropoli-30 elkarteak bazkideen Ohiko eta Ezohiko Batzar Orokorra egin zuen joan den ekainaren 15ean. Batzarren aurretik, Patronatu Batzarra eta Zuzendaritza Batza-

rra egin zituen, eta, azken horretan, beste gai batzuen artean, bi bazkide sartzea onetsi zen: Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa eta Fundación Miranda Fundazioa.

Bilbao Metropoli-30 elkartearen zuzendari nagusiak harrera egin zion Gasteizko Mercedes-Benz Ingeniaritza dibisioari, eta Bilbok izan duen eraldaketa eta Bilbao Metropolitarrak 2035 hausnarketa estrategikoaren prozesua aurkeztu zizkion.

Mercedes Benz Ingeniaritza ordezkaritza

Bilbao Metropoli-30 elkartearen zuzendari nagusiak harrera egin zion ekainaren 12an Gasteizko Mercedes-Benz Ingeniaritza dibisioari, eta Bilbok izan duen eraldaketa eta Bilbao Metropolitarrak 2035 hausnarketa estrategikoaren prozesua aurkeztu zizkion. Ingeniaritza dibisioa Mercedes-Benzek Gasteizen duen fabrikaren azaleraren garapen estrategikoaz arduratzen da.

Dibisioa osatzen duten pertsonen interes berezia adierazi dute Bilboko hiriaren garapen estrategikoaren ikuskeragatik, eta, datorkigun eraldaketa digitalaren eraginez, enpresetan gertatuko den eredu-aldaketagatik.

“Bikain 2017-2025” proiektua

Bilboko Udalak “bikain 2017-2025” proiektua abiarazi du. Horrek Bilboko hiriaren Smart City estrategia zehaztea dakar, eta helburua hausnarketa-espazio bat izatea da, etorkizuneko hiria nolakoa izan behar den zehazteko. Hori, Alkateak berak zuzendutako eta sail eta udal-enpresa guztiak bat datozen ikuspuntu batetik egingo da, hausnarketa-prozesu parte-hartzaile baten bidez eta epe luzerako denbora-ikuspegiarekin. Halaber, lana-

ren oinarriak ezarri nahi dira, osagarri tekniko batetik abiatuta.

la sail eta udal-enpresa guztien parte-hartzea izan duen barneko hausnarketa-prozesu baten ondoren, hiriarentzako erronka batzuk eta hobetzeko alderdi batzuk identifikatu dira, eta hiriko eragile sozial, ekonomiko eta jakintzaren arloekin alderatuko dira; horien artean dago Bilbao Metropoli-30 elkartea.

lido beretik, ekainaren 14an hausnarketa estrategikoko tailer bat egin zen, eta, bertan, egindako diagnostikoaren emaitzak eta ondorio nagusiak azaldu ziren. Era berean, 2025erako hiriaren etorkizuneko erronken ikuspuntuari buruzko eta lan-ildoak eta lankidetzarako esparruak identifikatzeari buruzko hausnarketa egin zen.



Lidergoari buruzko ikerketa-proiektu bateko lankidetzak (UNED)

BasquePRO proiektuaren barruan, Bilbao Metropoli-30 elkartea, elkartearen bazkide kolaboratzailea den

UNED-Bizkaia zentro elkartuarekin lankidetzan, ikerketa-proiektu bat garatzen ari da, “nortasun-lidergoa” neurtzeko tresna bat baliozkotzeko. Horrek lidergoa aztertu eta neurtzen du lantaldeetan, honako ikuspuntu honetatik: lidergoa prozesu dimentsioaniztuna dela, eta taldean nortasun sozialeko ideia partekatua, hau da, “gure” ideia partekatua ordezkatu, garatu, sortu eta garatzeko liderra den pertsonaren gaitasunetan jartzen duela arreta.



Bilbao Bizkaia Action Group

Bilbao Metropoli-30 elkarteak Bilbao Bizkaia Action Groupen bilkurara joan zen ekainaren 20an, eta, bertan, aurtengo lehen hiruhilekoaren jardueren bilakaera aurkeztu zen.

Dokumentu bat egin da Marketin Planaren kontzeptualizazio eta metodologia teknikoarekin, baita hori abiarazteko planifikazioa ere. Bestalde, Turismo Behatokiak urtero egiten duen azterketa berriro zehaztu eta handitu da. Denboraldien eta nazioarteko merkatuen hileko estatistika-txostenen eredu berriak sortu dira. Azkenik, proiektu pilotu bat egingo da Bizkaiko

eskualde eta udalerriekin, eta, turistez gain, Bizkaia txangoak egiten dituztenak ere sartuko dira azterketan.

BBAGko kideek eta sektoreko beste eragile garrantzitsu batzuek egitura operatibo berria izango dute: estrategiak garatzen dituzten eta 2020rako estrategia sustatzeko jarduerak planifikatzen dituzten 11 lantalde izango ditu.



Koreako Barne Arazaetako Ministerioaren ordezkari-tza

Ekainaren 21ean, harrera egin zitzaien Koreako Errepublikako (MOI) Barne Arazaetako Ministerio-ko langileek osatutako ordezkari-tzari. Izan ere, hiria bisitatu dute, Bilboren eraldaketa-prozesua, hiri-garapeneko politikak eta etorkizunerako estrategiak ezagutzeko.



Elkarteak Emakundek antolatutako “Enpresen eginkizuna, berdintasunaren bidean” jardunaldian parte hartu zuen, eta, bertan, berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko enpresei zuzendutako baliabideak aurkeztu ziren.

Emakunderen aurkezpena: “Enpresen eginkizuna, berdintasunaren bidean”

Ekainaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan “Enpresen eginkizuna, berdintasunaren bidean” jardunaldia egin zen. Berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko enpresei zuzendutako baliabideak aurkeztu ziren bertan.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak aktiboki hartzen du parte Emakunderekin, eta aipatutako aurkezpenean ere egon zen. Bertan, hain zuzen, enpresetan eta erakunde pribatuetan berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko metodologia eguneratua aurkeztu zen, eta horren helburua da arau-esparru horri erantzuna ematea, baita enpresek, erakunde pribatu eta publikoek eta gizarte-eragileek erakundeotan berdintasunaren alorrean aurrera egiteko baliabideak izateko eskaerari ere.



Euronet 50/50: ikastetxeen lanaren balorazioa

Ekainaren 22an, proiektua lehenengo urtean (2016-2017) egin duten ikastetxeen zuzendariak eta arduradunak bildu ziren, honako hauek baloratzeko: ikastetxe bakoitzeko esperientzia pilotua, hori abiarazteko prozesua, emandako informazioa, abiarazitako aurrezpen-neurriak eta ikasleekiko lankidetzak.

Euskara eta Hezkuntza Sailak 2016an Euronet 50/50 Europako proiektua abiarazi zuen Bilboko 4 ikastetxetan: San Inazion, Gallego Gorrian, Sanchez Marcosen eta Iturrigorri. Ekimenaren helburua erai-kin publikoetan energia aurreztea bultzatzea da, 2013ko Energiaren Europako Saria jaso duen egiaztatutako metodologiaren bidez.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak hasiera-hasieratik ematen dio babesa proiektuari, laguntza teknikoaren bidez.

Europako Kontseiluaren ordezkari-tza

Bilbao Metropoli-30 elkartearen bazkide fundatzailea den Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) eskatuta, ekainaren 28an, zuzendari nagusiak Bilbao metropolitarrak

ren biziberritzearen aurkezpena egin zien Georgia, Armenia, Moldavia eta Bielorrusiako ordezkariak, izan ere, Europako Kontseiluak antolatutako bisita baterako zeuden Euskadin.

EUDEL 1982an sortu zen, udalen autonomia defendatzeko eta beste erakunde batzuetan tokiko interesak ordezkatzeko. EUDEL erakundeak "sareko lanean" dago oinarrituta, eta jarduera autonomia-esparruko sare batean egiten du, tokian tokiko egiturak dituen sarean, hain zuzen.



Erresuma Batuko Jatetxe Iraunkorren Elkartearen bisita

2018ko ekainean "The World's 50 Best" ekitaldia egingo da, eta, horren haritik, Bilbao Metropoli-30 elkarteak harrera egin zion, ekainaren 28an, Erresuma Batuko Jatetxe Iraunkorren Elkarteari.

"The World's 50 Best" mundu osoko chef, sukaldari eta aditu onenak biltzen dituen ekitaldi ezaguna da, eta rankinga iragartzeko zeremonia egiten da bertan. Galaz gain,



Bizkaian egingo dira 2002tik egiten den sukaldaritzako hitzordu ezagunaren harira antolatutako hitzaldiak eta ekitaldiak. Sukaldaritzaren Oscar saritzat jotzen dituzte, eta munduko jatetxe onenen saria beti argitu izan da Londresen, harik eta 2016an gala Erresuma Batutik irten eta New Yorken egin zen arte. Aurtan Melbournen (Australia) egin da, eta 2018an Bizkaira etorriko da, hainbat egunetan hiriburua munduko gastronomiaren epizentro bihurtuz.

Tuxpanen bisita (Veracruz, Mexiko)

Eusko Jaurlaritzak Mexikon duen ordezkariak proposatuta, elkartearen harrera egin zitzaion Juan Pablo Alcantar jaunari, 2018-2021 aldirako Tuxpaneko Udalaren Garapen Ekonomikoaren idazkaria izango denari. Alcantar jaunak Bilbao bisitatu zuen ekainaren amaieran, Bilbao metropolitarraren eraldaketa-prozesua, elkartearen inplikazioa, epe luzerako lana eta Bilbao Metropolitarrak 2035 proiektua zuzenean ezagutzeko.



2018ko ekainean "The World's 50 Best" ekitaldia egingo da, eta, horren haritik, Bilbao Metropoli-30 elkarteak harrera egin zion Erresuma Batuko Jatetxe Iraunkorren Elkarteari.

Bilboko Udalak zuzenduta, Bilbao Metropoli-30 elkarteak World Cities Europako proiektuan lan egiten du, hirien garapenarekin lotutako eragilea baita.

Elkarteak duela zenbait urte hasi zuen harremana Tuxpanekin. 2012an, Bilbao Metropoli-30 elkarteak hiriri zuzendutako Hausnarketa Estrategikoa eta Eszenatokien azterketa egin zuen hiriko Udalarantzat. Era berean, harreman honekin garapen integralerako eta epe luzerako planen proiektuetan gertatzen ari den aldaketa bizkortu, eta hiriko eta eskualdeko garapen-proiektu bat egin nahi dute. Hala-ber, 2012ko maiatzean egin zen “Tuxpan, Ciudad con Valor” izeneko sinposioan parte hartu zuen.

World Cities (Brusela)

Bilboko Udalak elkarteari laguntza eskatu zion, hirien garapenarekin estu lotutako eragilea baita, “World Cities” Europako proiektuan lankidetzan aritzeko.

World Cities “EU-Third Countries Cooperation on Urban and Regio-

nal Development” erakundearen Europako proiektua da. Proiektu hori Europako hiriek eta beste eskualde batzuek hiri-garapen iraunkorraren arloan dituzten esperientziak trukatzeko laguntza ematera dago bideratuta, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren esparruan.

Bilboko taldea hainbatetan bildu da, Lurmutur Hiriarekin lan egiteko oinarritzko alderdiak eta hiriko balizko garapen-proiektuak zehazteko helburuarekin, eta martxoan hiri horretara joan zen.

Esparru horretan, bigarren hartumana egongo da, Lurmutur Hiriko ordezkariak bisita egingo baitute Bilbora, eta, ondoren, Bruselan bilduko baitira kideak diren hiri guztiak, proiektuaren garapenari ekarpenak egiteko.



World Cities
EU – Third Countries Cooperation on
Urban and Regional Development

governuko bazkide eta organoak

Bazkide berriak

Elkarteak joan den ekainaren 15ean egindako Zuzendaritza Batzordearen batzarrean, sartu berri diren bi bazkideak aurkeztu ziren: Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa eta Fundación Miranda Fundazioa.



prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Cuatro colegios de Bilbao promueven hábitos de ahorro energético entre su alumnado. El Correo, 22-06-2017.
- “El lazo familiar ya existía entre Idaho y Euskadi, ahora queremos hacer negocios”. El Correo, 16-06-2017.
- “Uniport puede aportar muchas ideas sobre el trazado de la VSF”. Estrategia Empresarial., 16-06-2017.
- Delegaciones de Holanda y Argentina visitan Bilbao. Estrategia Empresarial., 16-06-2017.
- Empresas de Idaho detectan oportunidades en la aeronáutica y el sector ferroviario vascos. Deia, 14-06-2017.
- Rementeria presenta a Bizkaia como la “bahía de Europa” a una delegación de empresas de EEUU. El Correo, 14-06-2017.
- Las mentes pensantes del futuro de la metrópoli. Deia, 11-06-2017.
- Deia 40 aniversario. Deia, 11-06-2017.
- Le Guggenheim, un pionnier de 20 ans. Le Figaro, 06-06-2017.
- El programa Actívate + sigue fomentando buenas prácticas de sostenibilidad ambiental. El Correo, 05-06-2017.
- Una delegación bilbaina viaja a Ciudad del Cabo para hablar de sostenibilidad. Deia, 26-03-2017.
- Premian el ahorro de energía de 247 alumnos en Barakaldo. El Correo, 02-06-2017.
- 19 colegios bajan su consumo de energía. Deia, 02-06-2017.
- Reconocidos 247 alumnos de Ezkerraldea, Meatzaldea y Enkarterri participantes en el programa Actívate+. El Diario Norte, 01-06-2017.
- Un plan de educación ambiental en Barakaldo rebaja un 18% el consumo de energía en colegios. Barakaldo Digital, 01-06-2017.
- Holanda y Argentina se fijan en las políticas culturales y de las pymes. El Correo, 27-05-2017.



www.bm30.es/prensa

EKAINAK 1

ANDREkintzailea Programa:
Presentzia publikoa II.BEAZ.

AKTIBATU + programaren
jarraipen batzordea eta
eskolen festa.
Barakaldo Antzokia.

Le Figaroren elkarrizketa.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

EKAINAK 5

Seulgo (Korea) Gobernu
Metropolitarraren bisita.
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

EKAINAK 6

Immigrazioari buruzko
kontseilu lokala. Bilbao
Metropoli-30 elkarte.

EKAINAK 8

ANDREkintzailea programa:
Zuzendaritza-jarduera
osasuntsua. BEAZ.

EKAINAK 14

"Bikain 2017-2025" proiektua
Cimubisa.

EKAINAK 15

Bilbao Metropoli-30en Ohiko
eta Ezohiko Batzar Orokorra
eta Patronatuko Batzarra.
Sota eraikina.

BM30en 131. Zuzendaritza
Batzordea. Bilbao Metropoli-
30 elkarte

UNEDekin elkarlana. UNED.

ANDREkintzailea programa:
Egoera zailen eta
negoziazioen kudeaketa I.
BEAZ.

Idaho Misio komertziala .
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

EKAINAK 20

Bilbao Bizkaia Action Group.
BEAZ.

EKAINAK 21

Koreako Barne Arazoetako
Ministerioaren ordezkariak

Emakunderen aurkezpena.
Eusko Jaurlaritza (Bilbao).

EKAINAK 22

ANDREkintzailea programa:
Egoera zailen eta
negoziazioen kudeaketa II.
BEAZ.

Euronet 50/50 bilera. Bilboko
Udala.

EKAINAK 27

BEAB: Euskara Elartearen
azpibatzerdea.
Bolsa Eraikinean.

EKAINAK 28

Europako Kontseiluko
ordezkariak.
EUDEL.

Erresuma Batuko Jatetxe
Iraunkorren Elkartearen
bisita.
Bilbao Metropoli-30 elkarte

EKAINAK 30

Tuxpanen bisita (Veracruz,
Mexiko).
Bilbao Metropoli-30
elkarte.

IRAILAK 14

ANDREkintzailea programa:
Zure enpresaren balio
erantsia eta merkataritza-
jarrera.
BEAZ.

IRAILAK 21

ANDREkintzailea programa:
Bezeroekiko harreman
eraginkorra.
BEAZ.

IRAILAK 28

ANDREkintzailea programa:
Branding korporatiboa. .
BEAZ.

URRIAK 6

ANDREkintzailea programa:
Enpresen networkinga. BEAZ.

URRIAK 9-13

World Cities.
Bruselas.

URRIAK 19

ANDREkintzailea programa:
Koherentea da gure
estrategia digitala?
Entzunaldi aktiboa online I.
BEAZ.

URRIAK 26

ANDREkintzailea programa:
Koherentea da gure
estrategia digitala?
Entzunaldi aktiboa online II.
BEAZ.

AZAROAK 2

ANDREkintzailea programa:
Koherentea da gure
estrategia digitala?
Entzunaldi aktiboa online
III.
BEAZ.

AZAROAK 9

ANDREkintzailea programa:
ETE-entzako komunikabide
sozialak I.
BEAZ.

AZAROAK 16

ANDREkintzailea programa:
ETE-entzako komunikabide
sozialak II.
BEAZ.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano
Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Elkarte
Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA